

## ERAKUSKETETARAKO ONDARE ONDASUNEN ESKAERA

### Fitxa interneten bistaratu

### INFORMAZIO OROKORRA

#### Helburua

Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea bere jabetzako ondare-objektuak laga ditzala aldi baterako erakusketa edo museo espazioetarako.

#### Nork tramitatzen du

- KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DPTUA.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia
- Gordailua eta Museoen Zerbitzua

#### Harremana

Kultura Zuzendaritza Nagusia Gordailua eta Museoen Zerbitzua

@ [gordailua@gordailua.es](mailto:gordailua@gordailua.es)  
943 41 51 78

#### Nori zuzenduta

Lagatzen diren ondasunen kontserbazioa eta erabilera egokia bermatzen duten erakunde publiko edo pribatuak.

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Ondare ondasunen eskaera formularioa.](#)

### Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabide inprimakia beteta  
Piezen inprimakia, behar bezala beteta.  
Aldi baterako erakusketari buruzko informazio xehatua.  
Eskatutako obra edo obrak kokatuko diren aretoaren «condition report» delakoa.  
Kontratatu den aseguruua (iltzetik iltzerako).  
Garraioaren ezaugarriak.

### Eskaera moduak

» Internet

### Internet bidezko eskaera

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>
- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/inicio>

### Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

## EBAZPENA

### Ebazteko gehienezko epea

Aurreikusitako epea: 1 hilabete  
Legezko epea: 3 hilabete  
Isiltasun administratiboaren ondorioak: ezespena.

## ARAUDIA

---

[8/1996 Foru Araua, uztailaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzkoa](#)

53. artikulua

Lagapenen berri eman behar zaie Gipuzkoako Batzar Nagusiei.

## INFORMAZIO OSAGARRIA

---

### Oharrak

- Eskaera erregistratzea eta egiaztatzea, eta hala badagokio, zuzentzea.
- Gordailua eta Museoetako Zerbitzuak baloratzea eta berrestea eskatutako obren zerrenda.
- Eskaerak Aldundiarenak ez diren bildumei eragiten badie (Gordailuan gordeta daudenak), jakinarazi eta obraren jabearekin mailegua adosten da.
- Behin betiko zerrenda Register-era pasatzea.
- Eskaera inprimakia zaharbertzailari helaraztea, Register-ek kontserbazio egoera egiazta dezan.
- Eskatutako obren kontserbazio egoera berrikusten du zaharbertzailak.
- Balorazio ekonomikoa sartzan da "Balorazio txostenean"; txosten hori nahitaezkoa da foru ebazpena emateko.
- Ondasuna garraiatzeko eta erakusteko beharrezkoak diren baldintza bereziak jasotzen dira «Balorazio txostenean».
- Idazkaritza Teknikora bidaltzen da "Balorazio txostena", Kultura Departamentuko titularraren proposamenari eransteko.
- Ondarearen arloko eskumenak dituen departamentuko titularraren proposamena.
- Diputatuen Kontseiluak onartzea.
- Pertsona edo erakunde interesdunari jakinaraztea.
- Eskatutako ondare objektuen irteerarako aurreikusitako data eta ordua adostea (15 egun lehenago) eskatzailearen eta Register-en artean.
- Irteerarako dokumentuak prestatzea. Register
- Ibiltaritza txostena prestatzea. Zaharbertzaila
- Obren aseguruua prestatzea/gainbegiratzea. Register edo Museoetako teknikaria
- Eskaera betetzen dela egiaztatzea (obren zerrenda, garraio baldintzak, etab.). Register
- Gordailuak eta obrak jasotzen dituenak irteera ziurtagiria sinatzea.
- Obra erakusketara tokira eramaten laguntzea «Posta».
- Erakusketa baldintzak in situ egiaztatzea.

### Informazio gehigarria

Aseguruua, egokitzapena eta garraioa erakunde eskatzailearen kontura izango dira. Balio handiko obren kasuan, erakunde eskatzaileak ordainduko ditu postaz arduratzen den pertsonaren bidaia eta egonaldi gastuak (erakusketaren hiriko bidaiak eta egonaldiak).